

MEMORIA

I.-	KATALOGOAREN XEDEA	1
II.-	KATALOGOAREN ETA KATALOGOKO AURREIKUSPENEN INDAR ARAUTZAILEA.....	1
III.-	ZAINDU BEHARREKO ELEMENTU MOTAK ETA XEDE HORRETARAKO PROPOSATU DIREN SISTEMAK	1
IV.-	INTERES HISTORIKO EDO ARKITEKTONIKOA DUTEN ERAIKIN ETA ELEMENTU ERAIKIAK	2
IV.1.-	Katalogoa eta katalogoan bereizi diren babes mailak sistematizatzea.....	2
IV.2.-	Babestu beharreko eraikin eta elementuen zerrenda.....	2
V.-	INTERES ARKEOLOGIKOA DUTEN ELEMENTU ETA ZONAK	3
V.1.-	Interes arkeologikoa duten elementu eta zonak identifikatzeko iturria.....	3
V.2.-	Elementu eta zona arkeologikoen modalitateak	4
V.3.-	Katalogoa eta "C.1.- natur guneak eta babes bereziko elementuak".....	4
V.4.-	Katalogoan jaso diren elementu eta zona arkeologikoen zerrenda. Balio arkeologikoa izan lezaketen guneak.....	4
V.5.-	Katalogoan jasotako elementu eta gune arkeologikoak arautzeko eta tratatzeko irizpideak.....	5
VI.-	NATUR INTERESEKO GUNE ETA ELEMENTUAK.....	5
VI.1.-	Bereziki babestutako eremuak	6
VII.-	BABESTU BEHARREKO ETA INTERES BEREZIKO BESTE ELEMENTU BATZUK	6
VIII.-	UDAL KATALOGOA.....	6

I.- KATALOGOAREN XEDEA

Plan Orokorrean jasotako aurreikuspenak osatzeko, hiriko elementu eraiki eta berezko jakin batzuen artapena bermatuko duten sistemak finkatu beharko dira; hau da, balio kulturak, historiko, natural, ekologiko edota zientifikoak dituzten eta beraz, zaindu egin behar diren elementuen artapena, alegia.

Agiri honetan proposatutako hiri baldintza egokitan garatu eta gauzatu beharko da, aipatutako elementu babestu edo babesgarri horiek zentzuz txertatuko diren moduan; eta betiere, elementu horiek hiriaren multzoan duten zeregina eta protagonismoa areagotu egingo da, hiriari dagokion hiri kalitatea emateaz gain.

Hauxe da, bada, Katalogoaren xedea:

* Zaindu beharreko elementuak identifikatzea, zaintza hori lortzeko bultzatu beharko diren agiriak bezalaxe.

* Elementu horiek zaintzeko jarraibideak erakustea, helburu horrekin bultzatu beharko diren agiriak ere zehaztuz.

II.- KATALOGOAREN ETA KATALOGOKO AURREIKUSPENEN INDAR ARAUTZAILEA

Katalogoak, eta bertako aurreikuspenek, indarrean dagoen hirigintza legerian –lurzoruari eta hirigintzari buruzko 2006ko ekainaren 30eko Legearen 60. artikulua– ezarritako indar arautzailea izango dute.

Katalogoa Plan Orokorrean sartzeak ez du inolako eraginik aipatutako indar arautzaile horretan; eta ez du esan nahi, inolaz ere, plan orokorraren lerruna ematen zaionik.

Agiri honetako aurreikuspenak aldatu edota egokitu ahal izango dira, Katalogoaren beraren lerrun berdineko agiri edo prozeduraren baten bitartez, edota lerrun handiagoko beste batzuen bitartez. Hori horrela, aurreikuspen horiek eta, katalogatutako elementuen berariazko identifikazioarekin lotutakoak, aldatu edota egokitu ahal izango dira, katalogoan jasotako elementuak zaintzeko neurriak ezartzeko erredaktatuko den edo diren plan berezien bitartez.

III.- ZAINDU BEHARREKO ELEMENTU MOTAK ETA XEDE HORRETARAKO PROPOSATU DIREN SISTEMAK

Lurraldean zaindu beharreko elementuek ez dituzte ezaugarri berak eta ez dira eredu berekoak; eta, era berean, Plan Orokor honetan proposatutako elementuak zaintzeko sistemak ere ez dira Katalogo honetara mugatzen.

Agiri honetan proposatzen diren esku-hartze neurriak behar bezala irakurtzeko eta ulertzeko, segidan azalduko diren gaiak beren osotasunean hartu behar dira aintzat. Honako hauek, hain zuzen:

Hasteko, zaindu beharreko elementu bat identifikatu eta sistematizatzeko, erreferentzia gisa hartu beharreko premisa bat, elementu horren berezko izaera edo eraikia izatea da, funtsean; eta izaera hori hartu behar da aintzat, halaber, kasuan kasuko elementua zaintzeko hartu behar diren neurriak zehazterakoan ere. Hasierako baldintza horretatik abiatuta, zaindu beharreko elementu motak bereizi dira. Honako hauek:

- * Interes historiko edo arkitektonikoa duten eraikin eta elementu eraikiak
- * Interes arkeologikoa duten elementu eta zonak
- * Natur intereseko elementuak
- * Babestu beharreko eta interes bereziko beste elementu batzuk

Bigarrenik, aipatutako elementu horiek zaintzeko sistema formalak, Katalogo honi hirigintza antolaketari gainjarritako baldintzei lotutakoak dira. Eta sistema horiek, hirigintza antolaketa garatzeko sustatu beharko diren plan, proiektu eta abarrekin osatuko dira; beraz, sistema horiei guztiei tratamendu bateratu eta koordinatua eman beharko zaie.

Eta hirugarrenik, zaindu beharreko natur elementuen zerrenda, funtsean, Plan Orokor honetan arautako hirigintza antolaketari gainjarritako baldintzei lotua dago. Honako hauek dira: “C.1.- interes bereziko natur guneak eta elementuak” eta “C.4.- baso-masa autoktonoak babesteko esparruak”, eta bereziki, landa parkeen barruan, natur ingurunea zaintzeko eta kontserbatzeko, eta betiere berreskuratzeko, egoiak diren eremuak.

Katalogo honi lotutako zaintza neurriak, edozein kasutan ere, Plan Orokor honetan xede berberarekin planteatu diren gainerako neurriekin osatuko dira. Plan hau garatzeko sustatuko diren azterlan eta proiektuetatik ondorioztatzen diren zaintza neurriak ere haien osagarritzat joko dira.

IV.- INTERES HISTORIKO EDO ARKITEKTONIKOA DUTEN ERAIKIN ETA ELEMENTU ERAIKIAK

IV.1.- Katalogoa eta katalogoan bereizi diren babes mailak sistematizatzea

Kasuan kasuko proposamenak behar bezala sistematizatzearren, honako babes mailak bereizi dira:

I.a maila.- Monumentu multzoak eta monumentu izendatutakoak

Maila honetan sartu dira izendatuak edo kalifikatuak dauden eraikin eta monumentuak, hala nola, kalifikatzeko edota izendatzeko espedienteak irekia dutenak, eta beraz, babes edo esku-hartze erregimenei lotuak daudenak –erregimen horiek berariazkoak edota generikoak eta iragankorrak direlarik ere–. Dena den, kasu guztietan, udalaz gaindiko erakundeen kontsulta loteslea beharko dute, eta jakina, erakunde horiek emandako baimena beharko dute.

Eraikin, eraikuntza eta monumentu multzo horiek babesteko araudiak, kasuan kasuko babes erregimen espezifikokoak jaso beharko ditu.

I.b maila.- Udalaz gaindiko interesa duten beste ondasun batzuk

Eusko Jaurlaritzako Ondare Zuzendaritzak monumentu edo monumentu multzo izendatzeko proposatu dituenak dira: Ondare hiritartua eta eraikia birgaitzeko jarduketa babestuei buruzko 317/2002 Dekretuan ezarritakoaren arabera, "Handitzerik gabeko eraikuntza esku-hartzeak" izeneko jarduketan –"eraberritze zientifikoa" eta "eraberritze kontserbatzailea" modalitateak– erregimenari lotuak egongo dira.

II.a maila.- 1 udal intereseko ondasun higiezinak

Ondasun edo elementu bakoitza babesteko erregimen berezia, xede horrekin sustatuko den Plan Berezian zehaztuko da.

Baina Plan Berezi hori garatzen ez den bitartean, eta elementu horietan gauzatu beharreko jarduerak gauzatzearren, baimendutako obrek errespetatu egin beharko dute bolumetria, kanpoaldeko itxura eta oinarriko antolaera tipologiko eta egiturazkoa. Egituraren material generikoa mantendu egingo da, eta horretarako, "finkatzea" eta "kontserbazioa eta apaindura" izenez ezagutzen diren esku-hartze kategoriak hartuko dira erreferentzia gisa, Ondare hiritartu eta eraikiaren babestutako birgaitze jarduerari buruzko 317/2002 Dekretuan jasotako "I. Birgaitzeko esku-hartzeak" eranskinean definitutako moduan. Era berean, goi babes-mailetan sartutako jarduek aparte, "zaharberritze" esku-hartzeak ere burutu ahal izango dira.

Eta, bidezkotzat jotzen den guztietan, ondasun eta elementu horietan aurreikusitako obrei eta jarduketari ekin aurretik, halakorik izanez gero behintzat, kultur ondarea zaintzeko gaietan eskumena duen administrazioaren arauzko txostena eskatzea proposatzen da. Hori horrela, aipatutako administrazioaren laguntza eta esku-hartzea eskatu ahal izango du Udalak, eskatutako obren edo jarduketan bideragarritasuna aztertzeko.

II.b maila.- 2 udal intereseko ondasun higiezinak

Udal mailako interesa duten eraikin eta elementuak, gauzatu beharreko jarduketetan nahitaez kontserbatu behar ez diren balio tipologiko edota arkitektonikoak dituztenak.

Ildo honetan ez da proposatu berariazko babes mailarik. Hala eta guztiz ere, beharrezkotzat jo da, azpimultzo honetan jasotako ondasunetan eragin lezaketen obretarako edozein lizentzia eman aurretik, berorien berri zehatza adieraziko duen agiri bidezko azterlana –egindako planoak, txosten fotografikoa, idatzizko txosten deskribatzailea– aurkeztea.

IV.2.- Babestu beharreko eraikin eta elementuen zerrenda

Monumentu multzoak, monumentu izendatuak, eta udalaz gaindiko interesa –I maila– duten beste ondasun higiezin batzuk

I.a maila.- Monumentu multzoak eta monumentu izendatutakoak

Monumentu gisa izendatutako ondasun higiezinak.

* 4. Aierdi baserria

2007ko maiatzaren 2ko Agindua, Kultura sailburuarena, Urnietako (Gipuzkoa) Aierdi baserria Monumentu kategoriako Kultur Ondare izendatzen duena, Euskal Kultur Ondarearen Inbentario Orokorrean –EHAA, 102 zk., 2007ko maiatzaren 29koa–.

Monumentu multzo gisa izendatutako ondasunak

- 0.- Done Jakue bidea
2/2012 Dekretua, urtarrilaren 10ekoa, Monumentu Multzoa kategoriako Kultur Ondasun Kalifikatu gisa izendatzen duena, EAEn zehar. EHAA, 19 zk., 2012ko urtarrilaren 27koa.
- * 1. Udaletxea. Babes ertaina
2/2012 Dekretua, urtarrilaren 10ekoa. 19 zk. EHAA, 2012ko urtarrilaren 27koa
- * 2.- San Migel eliza. Babes berezia
2/2012 Dekretua, urtarrilaren 10ekoa. 19 zk. EHAA, 2012ko urtarrilaren 27koa
- * 3.- Santa Leokadia ermita. Oinarrizko babesa
2/2012 Dekretua, urtarrilaren 10ekoa. 19 zk. EHAA, 2012ko urtarrilaren 27koa
- * 13. Errotaberria errota. Babes ertaina
2/2012 Dekretua, urtarrilaren 10ekoa. 19 zk. EHAA, 2012ko urtarrilaren 27koa
- * 21. Urnietako probalekua Oinarrizko babesa
2/2012 Dekretua, urtarrilaren 10ekoa. 19 zk. EHAA, 2012ko urtarrilaren 27koa
- * 22. Urnietako bolatokia Oinarrizko babesa
2/2012 Dekretua, urtarrilaren 10ekoa. 19 zk. EHAA, 2012ko urtarrilaren 27koa
- * 23. Urnietako pilotalekua. Oinarrizko babesa
2/2012 Dekretua, urtarrilaren 10ekoa. 19 zk. EHAA, 2012ko urtarrilaren 27koa
- I.b maila.- Udalaz gaindiko interesa duten beste ondasun higiezin batzuk
- * 15. Salestarren ikastetxea
- * 26. Mariaren Aurkezpena ikastetxea
II.a maila.- 1 udal intereseko ondasun higiezinak
- * 5. Arizmendi baserria
- * 6. Urmeneta baserria
- * 7. Argarate baserria
- * 8. Aritzola baserria
- * 11. Bezkita burdinola
- * 12. Trankatx errota
- * 14. Azkorteko Santo Kristoren ermita
- * 16. Azkonobieta baserria
- * 20. Franco hermanos (Ergoien)
- * 24. San Juan kalea 20 zk.ko etxea
- * 27. Micaela Enea

II.b maila.- 2 udal intereseko ondasun higiezinak

Zerrenda Udalak zehaztuko du, udalerrian jasotako datuen arabera. Kategoria honetan sartu beharko dira, gutxienez, lurzoru hiritarrezinean dauden eta, beren tipologia edo kokalekuarengatik, interesekotzat jo beharrekoak diren eraikinak –baserri zaharrak–.

V.- INTERES ARKEOLOGIKOA DUTEN ELEMENTU ETA ZONAK

V.1.- Interes arkeologikoa duten elementu eta zonak identifikatzeko iturria

Katalogo honetan jaso diren interes arkeologikoko elementu eta zonen zerrenda, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak gai honi buruz emandako informazioan oinarrituta egin da.

V.2.- Elementu eta zona arkeologikoen modalitateak

Bi modalitate mota bereizi dira:

* Gune arkeologikoak: gune hauen ezaugarri nagusia, ofizialki halakotzat izendatuak izateari lotua dago; eta beraz, gune horiek arautzeko eta tratatzeko ezarrita dauden irizpideei jarraitu behar diete.

* Balio arkeologikoa izan lezaketen zonak: gai honetan indarrean dauden lege-xedapenetan– 1990eko uztailaren 3ko Euskal Kultur Ondarearen Legea, 49. artikulua– ezarritakoaren arabera, aztarna arkeologikoak gorde ditzaketzen zonak dira; beraz, eremu horietan, premia bat arautzen da; alegia, eremuaren jabeak edo burutu nahi diren obren sustatzaileak, orubearen edo eraikuntzaren balio arkeologikoari buruzko azterlan bat egin behar du, eta obren proiektuan 1996ko urriaren 8ko 234/1996 Dekretuaren 7. artikulua eta horrekin bat datozenek izango duten eragina zehaztu.

V.3.- Katalogoa eta “C.1.- natur guneak eta babes bereziko elementuak”

Zerrenda honetan jasotako eraikin eta elementuak, Katalogoaren beraren testuinguruan ez ezik, “C.1.- interes bereziko natur guneak eta elementuak” baldintza gainjarriak ere aurreikusi dira.

Eta, gainjarritako baldintza horri jarraituz, elementu eta zona horiek guztiei erreparatu egin behar zaie, tratamendu bateratua emango zaiela bermatzearen, hain zuzen ere.

Katalogo honetan sartu egin dira interes arkeologikoa duten eta balio arkeologikoa izan lezaketen elementuak eta guneak, Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordeak 1997ko abenduaren 15ean emandako Ebazpenean halakotzat izendatuak –EHAA 16. zk., 1998ko urtarrilaren 26koa, II eranskina–.

V.4.- Katalogoan jaso diren elementu eta zona arkeologikoen zerrenda. Balio arkeologikoa izan lezaketen guneak

Kasu guzti-guztietan, Eusko Jaurlaritzak emandako zerrendan ageri diren zenbakiak mantendu dira.

Monumentu multzoaren kategoriaz kalifikatutako kultur ondasunen erregistroan jasota dauden zona arkeologikoak:

Onddi-Mandogeko estazio megalitikoak, 21 zenbakia

Ekainaren 24ko 137/2003 Dekretua, Gipuzkoako lurralde historikoko zenbait estazio megalitiko Kultur Ondasun kalifikatzen dituena, Monumentu Multzoaren kategorian, eta, aldi berean, horien babes erregimena finkatzen duena –EHAA, 133 zk., 2003ko uztailaren 8koa–.

- * 18.- Pozontarriko Lepoko trikuharria
- * 19.- Tximistako Egiako harrespilak
- * 20.- Onddiko kutxa
- * 21.- Aballariko trikuharria
- * 22.- Arleorko zabaleko harrespilak
- * 23.- Elurzuloko harrespila
- * 24.- Eteneta I.eko harrespilak
- * 25.- Otsolepoko trikuharria
- * 26.- Mulisko Gaineko harrespilak
- * 27.- Amunolako harrespila
- * 28.- Tximistako harrespila

Euskal Autonomia Erkidegoak balio arkeologikoa izan lezaketen zona gisa izendatutako gune arkeologikoak:

Kultura, Gazteria eta Kirol Sailburuordearen Ebazpena, 1997ko abenduaren 15ekoa. Urnietan Balio Arkeologikoa izan lezaketen guneak izendatzen dituena –EHAA, 16 zk., 1998ko urtarrilaren 26koa–.

- * 1.- Kontzeju Zarra –A–
- * 2.- San Migel parroki eliza –B–
- * 3.- Santa Leokadia ermita –A–
- * 5.- Oianume baserria –A–
- * 6.- Urmeneta baserria –A–

- * 7.- Erauso Haundi baserria –E–
- * 8.- Azkorteko Gurutze Santuaren ermita (ageriko egiturarik gabea) –E–
- * 9.- Argarate baserria –A–
- * 10.- Aritzola baserria –A–
- * 11.- Langardako iturria –E–
- * 12.- Errota-berri errota –D–
- * 13.- Izagirre baserria –A–
- * 14.- Aierdi baserria –A–
- * 15.- Bezkitia burdinola (aurri egoeran) –D–

Babes gunearen tipologia:

- A.- Eraikin barruko eremua
- B.- Eraikinaren barrualdeko eremua + 15 metro berorren inguruan, ertzik kanporatuenetik neurtuta.
- C.- Elementuak hartzen duen eremua + 5 metro berorren inguruan, ertzik kanporatuenetik neurtuta.
- D.- Eraikinak eta berorri atxikitako instalazioek hartzen duten eremua.
- E.- Planoan zehaztutako eremua

Euskal Autonomia Erkidegoak monumentu eta monumentu multzo izendatzeko proposatu dituen gune arkeologikoak:

- * 16.- Marizuloko haitzuloa –C–
- * 17.- Urnietako haitzuloa –C–

V.5.- Katalogoan jasotako elementu eta gune arkeologikoak arautzeko eta tratatzeko irizpideak

Elementu eta zona horiek, gai honetan indarrean dauden lege-xedapenetan ezarritako baldintzetan tratatu eta zainduko dira.

Baldintza horiek osatzea komeni dela erabakitzen bada, Plan Berezia erredaktatuko da.

VI.- NATUR INTERESEKO GUNE ETA ELEMENTUAK

Udalerrian, elementu eraikiez aparte, natur intereseko hainbat eremu eta elementu ere badaude, eta horiei, arreta berezia jarri eta zaindu egin behar dira.

“C.1.- interes bereziko natur guneak eta elementuak” eta “C.4.- baso-masa autoktonoak babesteko esparruak” baldintza gainjarriek, eremu eta elementu horiexek dituzte helburu.

Baldintza horiek izaera desberdineko eremu eta elementuetan eragiten dute, bai berorien ezaugarriek dagokienez, baita berezko balioaren ikuspegitik begiratuta ere.

Eremu eta elementu horiek, beren balio berezia dela-eta, Katalogo honen berariazko tratamendua eta zaintza merezi dute edo merezi lezakete. Beraz, eremu eta elementu horiek babesteko Plan berezi bat egitea proposatzen da, eta horretan, elementu horiek zaintzeko eta egokitzeko behar diren neurriak egokitzea, honako helburu hauek lortzearren:

* Aipatutako eremu eta elementuak identifikatzea, adierazitako baldintza gainjarriek ukituko dituztenen zerrenda berretsiz edota egokituz.

Zeregin hori, dena den, “C.4.- baso-masa autoktonoak babesteko esparruak” baldintza gainjarriak ukitutako eremu eta elementuei buruz beteko da; izan ere, “C.1” baldintzan sartutakoak, arautuak edo itxiak baitaude.

“C.4) baldintza horren eraginpeko eremuetan burutu daitezkeen jardueri ekiteko, eremu horietako bakoitzaren ezaugarriak eta balio xehetasun osoz begiratuko dituen azterlana egin beharko da.

* Aipatutako eremu eta elementuak zaintzeko eta tratatzeko neurriak zehaztea, gai honetan indarrean dauden lege-xedapenetan aurreikusitako neurriak garatzeko.

* Beren balio edo interes berezia dela-eta, Katalogoan sartu behar diren eremu eta elementuak identifikatzea, eta beroriek zaintzeko eta tratatzeko neurri bereziak zehaztea.

VI.1.- Bereziki babestutako eremuak

- * Leitzarango biotopoa
416/1995 Dekretua, irailaren 29koa. 201 zk. EHAA, 1995eko urriaren 20koa.
- * Natur intereseko eremua. Adarra-Usabelartza. B balioa: balio botanikoa
LAA: 28/1997 Dekretua, otsailaren 11koa.

VII.- BABESTU BEHARREKO ETA INTERES BEREZIKO BESTE ELEMENTU BATZUK

Lurraldean badaude,halaber, beren berezitasuna eta interes berezia dela-eta, babestu egin behar diren beste elementu interesgarri batzuk ere. Udal barrutian dauden saroiak dira. horien babesari dagokionez, lurzatiaren egiturari eta dituen elementu eraikiei begiratuko zaie –itxitura-hormak, egoitza erabilerara eta nekazaritza zein abelazkuntzako erabilera jakin batzuetara bideratuta dauden eraikinak–.

Urnietako saroiak: barruan dituen eraikinez aparte, elementuaren beraren osaketa babestuko da –lurzatiketa, itxitura, egitura–.

Legarralde. Baserria
Zuloeta. Baserria
Asolamakio
Altzusta. Baserria
Gorostarbe
Olaberriaga
Mendabio

VIII.- UDAL KATALOGOA

Udalak, interes naturala edo artifiziala duten eta udal mailan babestu behar diren ondasun eta elementu guztien Katalogoa erredaktatu beharko du. Eta Katalogo horretan jasoko ditu, halaber, zerrenda honetan adierazi diren eta lehendik ere nolabaiteko babesak badutenak ere.


NOTA: este documento ha sido traducido del original en castellano

Donostia, 2014ko ekainean


Erredakzioa:



Pedro Etxaniz Rebaque, arkitektoa



Ana Crespo Amado, arkitektoa



Mikel Iriondo Iturrioz, abokatua